

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA


SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolak ehun prestakuntza ikastaro baino gehiago eskainiko ditu datorren 2019an

Azpimarratzekoak dira suhiltzaile, polizia eta udaltzaingoko laguntzaile izateko sarrerako ikastaroak, lau promozio ikastarorekin eta espezializazio eta eguneratze prestakuntza jardura ugarirekin batera

Asteartea, 2018.eko abenduak 18

Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolak (NSLE-ESEN) datorren urtean 114 ikastaro eskaintzea aurreikusi du, María José Beaumont Presidentzia, Funtzio Publiko, Barne eta Justizia Sailburua buru duen Eskolako Zuzendaritza Kontseiluak onetsi duen [2019rako Prestakuntza Planean](#) jasotzen denez.



Azaroaren 30ean egin zen Polizia izateko Oinarrizko Sarrera ikastaroaren amaiera ekitaldiko irudia.

Izaskun Cibiriáin NSLE-ESENEko zuzendariak 2018ko Prestakuntza Planaren egikaritzearen zirriborroa ere eskaini du. Azaroaren 30eko datarekin, dagoeneko 121 prestakuntza jardunaldi gauzatu dira, sarrerako edo promozioiko 4 eta eguneratze edo espezializazioiko 117. Guztira, 6.131 ordu eman dira.

Datorren urteko Planak jasotzen dituen ikastaro azpimarragarrienak Nafarroako Polizia hautagai izateko oinarrizko sarrera ikastaroa, 975 ordukoa, eta suhiltzaile hautagai izateko, 1.315 ordukoa dira. Udaltzaingoko laguntzaile hautagai izateko sarrerako hirugarren ikastaro bat ere eskainiko da, 180 ordukoa.

Horrez gain, lau promozio ikastaro eskainiko dira: hiru Nafarroako Polizia izateko (bat kabo izateko, beste bat azpi-inspektore izateko eta hirugarrena inspektore izateko), 250 ordu baino gehiagokoak, eta SOS Nafarroako aretoko buru izatera heltzeko laugarrena.

Horrez gain, Eskolak arauetara egokitzeko 47 ikastaro eta espezializazioiko 53 ematea aurreikusi du, prestakuntza tekniko anitzekoak (bitartekaritza aditua, informazio kriminaleko tresna analitikoak, tripulaziorik gabeko aireko sistemen –droneak– pilotatzea, edo argiketak eta trafiko istripuen ikerketak), edo herritarrei arreta zuzena eskaintzekoak (genero indarkeriaren biktimen babesa edo sexu askatasunaren kontrako delituak).

Espezializazio ikastaroen artean, 11 ikastaro aurreikusi dira Foru

Poliziaren lekualdatze konkurtsoan edo konkurtso espezifikotan toki berriak lortzen dituzten profesionalak prestatzeko.

Beste alde batetik, azpimarratzekoak dira Nafarroako Suhiltzaile Zerbitzuko Erreskate Tekniko Taldera zuzendutako ikastaroak. Bertako kideak aurten hasi dira prestatzen, eta 2019ko lehen hiruhilekoan, helikoptero bidezko SAR bilaketa eta salbamendu, espeleo-laguntza, elurretako mendi eta amildegi erreskate ikastaroak jasoko dituzte, eta baita diziplina anitzeko praktikei, baliabide operatiboari eta zeharkako trebeziei buruzkoak ere.

Boluntarioak eta jardunaldiak

NSLE-ESENEk, gainera, mendi kanpainetarako aldi baterako suhiltzaile gidari laguntzaile eta suhiltzaile peoi laguntzaile gisa kontratatzen diren pertsonari zuzendutako prestakuntza eskainiko du, eta baita babes zibileko eta suhiltzaileetako boluntarioei zuzendutakoa ere.

Amaitzeko, bi jardunaldi egitea aurreikusten da, bat gorroto delituei, elkarbizitzari eta bitartekaritzari buruzkoa, Nafarroako polizientzat, eta bestea Larrialdiei eta Segurtasunari buruzkoa, osasun publikoko langileentzat.